

24-11-2024

ADI: Irteera hau BERTAN BEHERA geratu da haize-alerta laranjaatik , eta beste egun batean egingo dugu.

IBILBIDEA

Saldropoko hezeguneko aparkalekuan utziko ditugu kotxeak. Aparkaleku nahiko txikia da, eta egun hauetan jendez gainezka egoten denez, oso garrantzitsua da adierazitako ordutegian iristea bertan aparkatu ahal izateko. Inguru bukoliko honetatik hasiko dugu ibilbidea hezegunearen zati bat zeharkatuta, Otzarretako pagadira hurbilduko gara. Bidean atzera begiratuta eta egunak uzten badu, Gorbeia gailurra eta Gorbeia Gurutze enblematikoa ikusiko ditugu.

Otzarretako pagadia baso txikia da, baina izugarriko magia gordetzen du. Basoan lasai ibiltzeko eta bere magia gozatzeko denbora izango dugu eta bide batez argazkiak eta bideoak ateratzeko aukera izango da, bizitza osorako oroigarri bat gordetzeko.



Pagaditik berriro bideari heldu eta Uguna ur-jauzira joango gara, Saldropoko hezegunea berriro zeharkatuta. Bidean, ziurrenik, behiak edota zaldi taldeak ikusiko ditugu, horrek ingurua bereziagoa bihurtzen du. Lur-pista batetik ibiliko gara ur-jauziaren goiko aldera iritsi arte. Hemendik, malda handiko bidexka estu batetik jaitsi ahal da ur-jauziaren oinarriaino iritsi arte.

(Egunaren arabera jaitsiera iristakorra izan ahal da, beraz bertan aztertuko dugu bidexkaren egoera jaitsiera baloratzeko; izan ere, ikusi ahal izango duzue, bidea zaila izan ahal da puntu honetan. Kontuz ibili!).

Ur-jauziaren inguruan bazkalduko dugu eta pistatik lasai itzuliko gara Saldropoko aparkalekuan amaitu arte.

IKUSI ETA IKASI

- Saldropo hiru hektareako hezegune bat da, eta urari lotutako balio ekologiko handiko landaredia eta espezieak dituen ekosistema berezi bat osatzen du.
- Gorbeia Parke Naturalean ibiliko gara, euskal mitologiako istorio ugariren eszenatokia, non lamiak, sorginak eta jentilak protagonista nagusiak diren.

Compártelo:

- Click to share on WhatsApp (Opens in new window)
- Click to share on Telegram (Opens in new window)
- Click to share on Facebook (Opens in new window)
- Click to share on X (Opens in new window)
- Click to email a link to a friend (Opens in new window)

DATU TEKNIKOAK

Jarduera mota GAILURRA TXIKI. Familientzako irteera

Kokapena

Metatutako desnibela +140/ -140

Luzera 7 km

Jardueraren iraupenaren aurreikuspena

Elkartzeko tokia eta ordua

2024ko azaroaren 24an, domeka. 09:30etan. Saldropoko aparkalekuan

Ibilbidearen hasiera eta bukaera

Saldropo Aparkalekua (hasiera-amaiera)

Irteerarako izena emateko azken eguna

20-11-2024

Jakin beharreko kontu teknikoak

Prestakuntza fisiko beharrezkoa

Material tekniko beharrezkoa

1. Jarduerarako eta urte-sasoirako egokiak diren mendiko arropa eta oinetakoak.
2. Edaria eta janaria egun osorako.
3. Txikiek A4 plastikozko zorro batean eraman dezakete mapa , ibilbibearen datuak kontsultatzeko.

Bestelako oharrak

Argibide gehiago:

